

Pyrenaica 2009 IV. Ipu in
lehiaketako lehen saria

Ernesto Prat Urzainki

FREE PELTIER "LITTLE HORSE" N

GAUA zen erreserba zaharrean. Basoa mutu zegoen. Tarteka, animaliaren baten ihesak apurtzen zuen isiltasuna. Edwin, gure protagonista, bidezidorretik zihoan ilunpetan. Ilargiak frontalik gabe ibiltzea ahalbidetzen zion. Eskerrak. Gauaren iluntasunean argi baten mugimendua sobera deigarria litzateke. Guardek aise ikusiko zuten eta hauen jazarpenak arriskuan paratuko zuen abentura.

Bitxia zen leku eder horren historia, 1884an indiarrendako erreserba izan zen eta zuriek handik ateratzeko debekua ezarri zieten. Mende pasa geroago, zuri horien ondorengoek, agintean oraindik, parke tematiko bihurtu zuten, mendi lirain haietara hurbiltzeko sarrera gisako bat ipinita. Horrez gain, zenbait ekintza, eskalada eta espeleologia bertzeak bertze, debekatu egin zituzten, kirol hauek ez omen zutelako sosa nahikorik uzten tokiko txiringito turistikoetan. Harrigarria nonbait, lehen ezin atera, gero ezin sartu.


Edwinek argi zeukan helburua: ekialdean zegoen "Little horse" izeneko paretatzarra kateatzea. Horma honek erakartzen zuen, udaberriko lore koloretsuek erleak erakartzen dituzten legez. Barruko bultzada bati erantzuna bilatu nahiak eraman zuen proiektu arriskutsu horretan sartzera. Gauetz eta mendiz joatea erabaki zuen. Txikitan gurasoekin emandako egun-pasei esker aski ongi ezagutzen zituen hango bazterrak eta ilargiaren laguntzarekin ez zen bide zaila izanen. Mendiz sartearenak agintariekin paratutako bidesaria ez ordaintzea zuen helburu. Izan ere, bertze aukera bat zen turistaz mozorrotua sartzera eta momentu jakin batean parkea zeharkatzen zuen tren elektrikotik jaistea, baina naturaren ustiapen espekulatzailearekin kolaboratzeak amorrua ematen zion.

Aitzinerat segitzen zuen. Erritmo horretan egunaren lehen argiekin batera eskaladari ekinen zion eta, behin goiti abiatuta, ezinezkoa izanen zuten guardek igoera ekiditea, nahiz eta prismatikoekin urrundik ikusi.

Adrenalina borborka zuen. Urduri zegoen. Bakarrik zegoen. Honela ibiltzeak apatxeen "Zaldia bilatzera doana" deituriko iniazio erritua ekarri zion gogora. Apatxeek, heldutasunera ailegatzeko basora abiatu behar izaten zuten bakarrik, zaldi basa bat erdietsi artio. Hainbat egunez jarraitu behar izaten zuten aukeratutako zaldia, jateko eta edateko atsedetik eman gabe, animaliak gaztearen eskutik jan artio. Orduan, eta soilik orduan, bueltatzen ahal ziren herrixkara, zaldiarekin, gizon eta gerlari bilakaturik.

zehazki zertaz, baina bihotzak eskatzen zion eta bultzada horri bidea ematen zion, bertzerik gabe.

Janzkera traketskoa zen eta mendian itxura zatar hau areagotzen zuen. Hori guziari, indioei zien mirespena zela medio, ilea luze-luzea eta arrano luma pare batez apaindua eramaten zuela gehitu behar zitzaion. A ze piura!



Edwin gaztea sasoiari zegoen, berezkoa zuen argaltasuna eta giharrak auzoko rokodromoan lantzen zituen. Irlandan izandako gosetetik eskapo etorri zen bere familia Ipar Amerikara hiru edo lau belaunaldi lehenago. Hala ere, aitik txikitan kontatzen zizkion iratxoan kondairekin aspertzen zen. Indigenen istorioek, berriz, liluratu egiten zuten. Egia erran, bazirudien Irlandako mitologia zaharra ez zela Edwinekin galduko zen gauza bakarra izanen. Familia arras katolikoa zen. Berak ordea, erlijio katolikoaren sinesmenen gainetik, Amerikako indigenen erritu paganoak sentitzen zituen hurbilen. "Little horse" igotzearena bezalakoa zen. Ez zekien

"Little horse" Zaldi txikia. Izena apatxeek paratu zuten euren hizkuntzan baina erreserbaren kontrolaz arduratzen ziren "Fort Black"eko militarrek ingelesera itzuli zuten. Gerora, jatorrizko izena galdu egin zen eta itzulpenak baino ez zuen urteen joan-etorriari biziraun. Errekaren kontrako norabidean haranean sartuz gero parez pare ikusten zen mendia. Honen formak, perspektiba honetatik ikusita betiere, zaldi txiki baten buruaren antza zuen, ezkerretara begira. Bistan zegoen, beraz, izenaren zergatia.

Horma ikaragarria zen. Zirudienaren arabera zapaldu gabea edo, beharbada, abenturazalaren batek eskalatu eta

agintariekin arazo legalak saihesteko egitasmoaren berri eman gabe utzia. Honek ez zitzaion aunitz axola Edwini, ez zen batere dominazalea.

Pentsatu bezala, egunsentiarekin ailegatu zen "Little horse"ra. Orain nondik hasi erabaki behar zuen. Bi linea posible ikusten zituen. Bata zaldiaren eztairik belarrira joaten zena, zuzena eta motza. Zaldiaren lepotik belarrira bertzea, paretaren eskuinetik ezkerre zeharkatzen zuena. Lehenbizikoa, bai, motzagoa zen, baina erosioa, artekak eta heldulekuak ikusita bigarren aukera zuen logikoena. Azken hau izan zen hautatu zuena.

Hasierako luzeak, egia erran, ez ziren zailak. Harria desegina zegoenez, kasu pixka bat ematea nahikoa izan zen arazorik gabe tarte hori gainditzeko. Lehenbiziko metroak askaturik, lasaitzeko eta hausnartzeko une batez gelditu egin zen.

Hortik aitzinerat guarden eginahalak alferrikakoak izanen ziren. Ezinezkoa eginen zitzaien igoera galaraztea. Orain oztopo bakarra paret bera zen. Gainontzeko aferak atzendurik mugimenduetan kontzentratu zen.

Argi zegoen nondik jo. Arteka estu bat jarraitu zuen berdegune txiki bateraino. Aurrera egin ahala handituz zihoan bertikaltasuna, gero bukaeraraino mantentzen zen. Arraildura estu horrek tximinia bati ematen zion paso: urteetan zehar urak zizelkatutako ebakia. Mendiaren erraietatik segitzeko harrizko tunel bertikala. Edwinek gustoko zituen iraganbide hauek. Hemen eskalatzeko modua aldatu zuen. Helduleku guti izan arren, paretan arteko indarraren kontraposizioaren bidez goiti egiten zuen, gorputza fisurero erraldoia balitz bezala.

Harriaren barnean zegoen. Eguzki izpiak nekez sartzen ziren eta hezetasuna usaintzen zen. Gauean sentitu zuen bakardadeak inbaditu zuen berrir. Soilik bere arnasketa azeleratuak hausten zuen isiltasuna. Artekaren barrualdera begiratu zuen, mendiaren

bihotza ikusi edo entzun nahiko balu bezala.

Goyathlay gerlari txirikahua etorri zitzaion burura.

San Jeronimo egunean borroka latz batean parte hartu zuelakotz jarri zioten zuriek Jeronimo goitizena. Ondoren, askatasun egarriak zein borrokarako grinak ia mitoa izateraino eraman zuten. Jeronimok, bere herria gidatzeko erabaki garrantzitsuren bat hartu behar zuenean, mendietara joaten zen pentsatzera. Erabaki zuzenena bilatzen zuen. Horretarako barauan eta bakardadean ematen zituen egunak, mendiaren eta basoen espirituak aditzen. Honela, meditazio sakonean, aurkitzen zuen erantzuna. Gure gazteak ez zuen gidatu

beharreko herririk, baina mendiek eta basoek bizitzaren zentzuaren hausnarketan laguntzen zioten.

Tximiniatik aterata, hormaren hondar zatia falta zuen, plaka zabal bat. Dudarik gabe, puskarik zailena. Hemen, hutsegite txiki batek heriotza suposatuko luke. Momentuz eroso zebilen. Oinak zerbait goititu, besoak luzatu, euskarriak bilatu eta goiti! Poliki-poliki gaztetan hainbertzetan amestutako mendia garaitzen ari zen.

Une zehatz batean, ez aurrera ez atzera blokeaturik gelditu zen. Oreak galtzen zuela nabaritzen zuen. Gorputzaren kontrola berreskuratzeko, eskuineko oina eskuinerago pausatu beharra zuen. Ezkerreko eskuarekin harria ukitzen zuen zerbaiten bila, baina ez zuen eusteko deus aurkitzen. Izerditan zegoen. Eskuak gero eta bustiagoak zeuzkan, nahiz eta prakatan idortzen saiatzen zen. Indarra galtzen ari zen. Hanken dardara jasanezina zen. Horrela ez zuen denbora luzerik iraunen. Zerbait egin behar zuen. Fite gainera! Gero eta urduriago, nerbioek ez zioten pentsatzen uzten. Bat-batean, ahots sakon batek zera erran zion: "Egoera larrian zaude Edwin. Jadanik ez dago atzera bueltarik. Hartutako erabakiekin kontsekuentea izan eta ondorio guzien ardura zure gain hartu behar duzu. Lasaitu zaitetz. Utzizu zeure buruari eskuak begien bitartez gidatzen." Orduantxe, erortzear zegoela, eskuineko oina eta eskuarekin indarra eginez goitiruntz bultzatu zuen, ezkerreko eskuak euskarri sendo bat aurkituko zuela sinestuta. Muturreko egoera baten aitzinean muturreko erabaki bat. Dena ala deus ez.

Balantza gure protagonistaren alde paratu zen.

Hondar metroak gaindituta, kaskora ailegatu zen. Ordura artio pasatutako urduritasuna eta tentsioa poza ziren orain. Amets bat betetzearan poza. Punturik altuenean zutik jarri zen, zeruari begira. Unibertsoaren zilborra zela iruditzen zitzaion eta den-dena: mendiak, basoak, errekek, baita eguzkia ere, bere inguruan jirabiraka ari zela. Begiak itxi zituen eta Goyathlayen argazki mitikoan pentsatu zuen. Erriflea eskuetan, larrazko polainak, belaua lurtean, soineko argia, lepoan zapia..., aurpegiko zimurretan, aho estatikoan eta begirada sakonean etsipena sumatzen zitzaiola. "Mila esker emandako indarrarengatik Jeronimo" xuxurlatu zuen Edwinek.

Orain, egindako bidearendako izena behar zuen. Minutu pare batez pentsarko gelditu zen. Zerura luzatu zituen besoak eta "Free Peltieeeeeer!" oihukatu zuen.

Leonard Peltierrek hogeita hamar urte baino gehiago zeramatzan espetxean FBI-ren muntaia polizial baten ondorioz. Amerikako indiar nazioaren eskubideen aldeko mugimenduko partaide aktiboa izan zen eta egindako borroka garesti ari zen ordaintzen. Nolabait, mundu injustu batean injustiziarik nonahi.

Goyathlay apatxe txirikahuaen ahotsak errandakoa aintzat hartuta, Edwinek bere pentsakerarekin koherentzia jokatu zuen. Mendi federazioan "Free Peltier" izeneko bide berria erregistratu zuen eta presoaren askatasunaren aldeko kanpainari gehitu zen "Little horse"ko egitasmoa, agintarien balizko errepresaliak kontutan hartu gabe. Nonbait, bere buruarekin zintzoa eta kontsekuentea izatea oztopo horien guzian gaintetik paratu zuen.

Geroztik, mendi kasko batera igotzen den bakoitzean, haizearen laguntzaz oihartzuna erreserba zaharreko zoko guzietara zabaltzen dela, "injustiziarik gabeko mundu baten alde... FREE LEONARD PELTIER!" oihukatzen du.